



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko uztailaren 5a

95. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Arartekoari buruzko fiskalizazio-txostena (2017), Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena (2017), Kontuen Ganberak egina (12. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko. Bete gabe gelditu da (19. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2018ko ordainsariak (20. or.).
- Foru parlamentarien 2018ko ordainsariak eguneratzea (20. or.).
- Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2018an jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea (21. or.).
- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2018ko ordainsariak eguneratzea (21. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratudunen sailkapen-mailei dagozkien 2018ko ordainsariak eguneratzea (22. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Arartekoari buruzko fiskalizazio-txostena (2017), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Arartekoari buruzko fiskalizazio-txostena (2017) egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Arartekoari buruzko fiskalizazio-txostena (2017), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Nafarroako Arartekoaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko iritzia (5. or.).
 - II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (5. or.).
 - II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (6. or.).
- Eranskina. Nafarroako Arartekoaren 2017ko urteko kontuen laburpena (7. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea Administrazioaren balizko abusu eta zabarkerien aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18 ter artikuluan estatutu-mailako kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Nafarroako Parlamentuak hautatu eta izendatzen du, eta urtero haren aurrean erantzuten du eginda-koarengatik. Egun kargu hori betetzen duen pertsona 2007ko martxoaren 22an izendatua izan zen, sei urterako, eta gaur egun behin-behinekoz betetzen ditu bere eginkizunak.

Eginkizun dituenak gauzatzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu kargutik.

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2018rako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Arartekoaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Kontu horiek honako hauek osatuta daude: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua, ondare garbiaren aldaketaren egoera-orria, eskudiruaren fluxuaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Arartekoak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Arartekoaren Bulegoari 2017an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak eta otsailaren 21eko 3/2008 Foru Legeak aldatua.
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2005eko azaroaren 21eko Erabakiaz onetsia.
- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago kontabilitaterako, kontuhartzaitzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko; eta kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago orobat.

Arartekoaren aurrekontu-proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2010ean Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onetsi ondoren, Nafarroako Arartekoak kontabilitate plan horren arabera aurkeztu zituen bere kontuak 2017. urtean.

2017ko ekitaldiko datu nabarmen gisa, honako hauek aipa daitezke:

- Aitortutako betebeharrak 658.720 euro egin dute, eta betetze-maila % 87koa izan da. 2016an, betebeharrak horiek 667.400 eurokoak izan ziren.
- Gastua, kapituluaren arabera, honela banatzen da: langile-gastuari % 74 dagokio (2016an, ehuneko 72 izan zen), eta ondasun arrunt eta zerbitzuei, berriz, ehuneko 21 (2016an, ehuneko 22 izan zen).
- Aitortutako diru-sarrerek 755.574 euro egin dute, eta betetze-maila % 100ekoa izan da. Diru-sarrerak horietatik gehienak, 753.544 euro, Nafarroako Gobernuarengandik jasotako transferentzietatik

heldu dira; horietatik, 736.880 funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratutako transferentzia arruntak dira, eta 16.664 euro, berriz, inbertsio-gastuetara bideratutako transferentziak.

- Arartekoaren bulegoaren gastuak jaitsi egin dira azken urteotan; halatan, 2009an 1.032.260 eurokoak izatetik 2017an 658.720 eurokoak izatera igaro dira; alegia, ehuneko 36 jaitsi dira. Plantilla 2010ean 12 lanpostukoa izatetik 2017an zortzikoa izatera igaro da; alegia, ehuneko 33 murriztu da. Abenduaren 31n, zortzi lanpostuak beteta zeuden.

- 96.854 euro itzuli zitzaizkion Nafarroako Gobernuaren Diruzaintzari, ekitaldiko gerakina baitira.

- Honako taula honetan ikus daitezke Nafarroako Arartekoaren plantilla organikoa, 2017rako indarrean egon dena, eta langileak, abenduaren 31n:

Langile mota	Plantilla	Langileak, abenduaren 31n
Behin-behinekoak	5	5
Funtzionarioak	3	2
Administrazio-kontratupekoak	-	1
Guztira	8	8

- Nafarroako Arartekoaren urteko txostenaren arabera, honako hauek dira 2017an zehar egindako jarduerari buruzko datuak:

a) 2.412 jarduketa egin dira guztira; 2016an baino ehuneko 23 gehiago.

b) 1.121 kexa-espeditente kudeatu dira guztira; aurkeztutako kexak, berriz, 921 izan ziren.

2017ko abenduaren 31n, 980 kexa-espeditente zeuden ebatzita, hau da, kudeatutako guztien ehuneko 87; horrenbestez, data horretan ebatzeko zeuden kexa-espeditenteak 141 ziren.

c) Administrazio publikoei 118 iradokizun, 232 gomendio eta 122 legezko betebeharren gogorazpen helarazi zaizkie.

Txostenak bi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezketasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen du, Arartekoaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuei dagokionez. Txostenari eranskin bat gehitu diogu, urteko kontuen laburpen batekin.

Azterketa lana 2018ko apirilean egin du lantalde batek, auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatuak. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Arartekoaren langileei, lan hau egiteko eman diguten lankidetzarengatik.

II. NAFARROAKO ARARTEKOAREN 2017ko EKITALDIKO URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Nafarroako Arartekoaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen eranskinean.

NAFARROAKO ARARTEKOAREN ERANTZUKIZUNA

Nafarroako Arartekoa da urteko kontuak egiteko ardura duena. Urteko kontu horiek, Nafarroako Arartekoaren kontu-hartzaileak aurrez egindakoak, aurkeztu eginen ditu eta gero Nafarroako Parlamentuari igorriko dizkio. Kontu horiek irudi zehatza eman behar dute Nafarroako Arartekoaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Azterketa honek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriari eta legezkotasuna betetzeari buruzko iritziari eusteko.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziak, urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Nafarroako Arartekoaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2017ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Nafarroako Arartekoaren 2017ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen ardura-duna.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 14an.
Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA. NAFARROAKO ARARTEKOAREN 2017KO URTEKO KONTUEN LABURPENA**1. 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****DIRU-SARRERAK KAPITULUZ KAPITULU**

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetzearen ehunekoa	Kobrantzak	Kobrانتzen ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	100	0	100	480	480	480	100
4. Transferentzia arruntak	736.880	0	736.880	736.880	100	736.880	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	168	0	168	14	8	14	100
7. Kapital-transferentziak	16.664	0	16.664	16.664	100	16.664	100
8. Finantza-aktiboak	1.536	0	1.536	1.536	100	1.536	100
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0	0	100
Guztira	755.448	0	755.448	755.574	100	755.574	100

GASTUAK, KAPITULUZ KAPITULU

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetzea (%)	Ordainketak	Ordainketen ehunekoa
1. Langile-gastuak	523.448	0	523.448	485.273	93	485.273	100
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	179.600	0	179.600	136.096	78	128.902	95
4. Transferentzia arruntak	34.100	0	34.100	31.583	94	31.583	100
6. Inbertsio errealak	18.000	0	18.000	5.768	33	5.768	100
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0		0	
8. Finantza-aktiboak	200	0	200	0	100	0	100
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0	0	
Guztira	755.448	0	755.448	658.720	88	651.526	99

Diru-sarrerak, guztira	755.574
Gastuak, guztira	-658.720
Aurrekontuko superabita	95.854
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	96.854

2. 2017ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	2017				2016			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizta	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizta
a. Eragiketa arruntak	737.374	652.952		84.422	739.419	659.992		79.427
b. Kapital-eragiketak	16.664	5.768		10.896	16.200	4.336		11.864
c. Merkataritza-eragiketak	0	0		0	0	0		0
1. Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	754.038	658.720		95.318	755.619	664.328		91.291
d. Finantza-aktiboak	1.536	0		1.536	896	3.072		-2.176
e. Finantza-pasiboak	0	0		0	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	1.536	0		1.536	896	3.072		-2.176
I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (I=1+2)	755.574	658.720		96.854	756.515	667.400		89.115
Doikuntzak								
3. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakinez finantzatuta gastatutako kredituak			0				0	
4. Ekitaldiko finantzaketa desbideratze negatiboak			0				0	
5. Ekitaldiko finantzaketaren desbideratze positiboak			0				0	
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)			0				0	
Aurrekontu-emaizta doitua (I+II)				96.854				89.115

3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2017ko ABENDUAREN 31n

Osagaiak	2017ko ekitaldia	2016ko ekitaldia
1. (+) Funts likidoak	141.205	126.688
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	0	0
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	141.205	126.688
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	7.194	4.532
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	134.011	122.157
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden kontu-sailak		0
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatu gabeak	0	0
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatu gabeak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	0	0
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III Kobratzen zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza gerakina= (I-II-III)	0	0

4. 2017ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

Aktiboa	2017	2016	Ondare garbia eta pasiboa	2017	2016
A) Aktibo ez-korrontea	204.931	253.904	A) Ondare garbia	205.571	256.080
I. Ibilgetu ukiezinak	15.488	28.303	I. Ekarritako ondarea	0	0
3. Aplikazio informatikoak	15.488	28.303	II. Sortutako ondarea	205.571	256.080
II. Ibilgetu materiala	189.443	225.601	1. Aurreko ekitaldietako emaitzak	205.571	256.080
2. Eraikinak	112.346	116.007	Ondarea	211.033	261.542
4. Ondare historikoko ondasunak	41.509	41.509	Lagatako ondarea	-5.462	-5.462
5. Bestelako ibilgetu materiala	35.588	68.086			
Makinak, instalazioak eta tresnak	949	34.151			
Altzariak eta tresneria	2.427	4.667			
Informazio-prozesuetako ekipoa	7.803	5.926			
Bestelako ibilgetu materiala	24.409	23.343			
B) Aktibo arrunta	141.845	128.864	C) Pasibo korrontea	141.206	126.688
III Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0	IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	141.206	126.688
2. Kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0	1. Kudeaketa-eragiketengatik hartzekodunak	6	
3. Administrazio publikoak	0	0		7.194	4.532
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	640	2.176	3. Administrazio publikoak	134.011	122.157
2. Kredituak eta zorra adierazten duten beste balio batzuk	640	2.176	Ogasun Publikoa, PFEZaren hartzekodun	25.388	22.216
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	141.206	126.688	Ogasun Publikoa, eskubide pasiboen hartzekodun	2.161	2.098
2. Diruzaintza	141.206	126.688	Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketak dela eta	96.854	89.115
Kutxa	183	502	Gizarte Segurantzaren hartzekodun	9.609	8.728
Bankuak eta kreditu-erakundeak	141.022	126.187			
Aktiboa, guztira	346.777	382.769	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	346.777	382.769

5. 2017ko EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2017	2016
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	753.544	755.300
a) Ekitaldikoak	753.544	755.300
a.2) Transferentziak	753.544	755.300
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	16.664	16.200
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	736.880	739.100
7. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	0	0
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira (1+2+3+4+5+6+7)	753.544	755.300
8. Langile-gastuak	-485.273	-479.444
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-398.819	-395.373
Arartekoaren soldatak eta lansariak	-65.189	-67.481
Aldi baterako langileen soldatak eta lansariak	-227.208	-225.441
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-76.688	-73.991
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-29.735	-28.460
b) Gizarte-zamak	-86.454	-84.070
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	-86.454	-84.070
9. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	-31.583	-32.141
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-136.096	-148.407
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-136.096	-148.407
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-54.603	-67.618
B). Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+10+11+12)	-707.555	-727.610
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	45.989	27.690
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen eta balio-galera beste- rentzearen emaitzak	-139	-7.344
a) Balio-galera	0	0
b) Bajak eta besterentzeak	-139	-7.344
14. Arruntak ez diren beste kontu-sail batzuk	480	142
a) Diru-sarrerak	480	142
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA (I+13+14)	46.331	20.488
15. Diru-sarrera finantzarioak	14	178
b) Balio negoziagarri batzuen eta aktibo ibilgetuko kredituenak	14	178
B 2) Besterik	14	178
III ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA (15+16+17+18+19+20)	14	178
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (II+III)	46.345	20.665

6. 2017ko ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Guztira
Ondare garbia 2016ko ekitaldiaren bukaeran	0	256.080	256.080
Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketengatik eta zuzenketengatik egindako doikuntzak	0	0	0
2016ko ekitaldiaren hasierako ondare garbia	0	256.080	256.080
2017ko ekitaldian ondare garbiak izandako aldaketak	0	-50.509	-50.509
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	0	46.345	46.345
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	0	0	0
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	0	-96.854	-96.854
Ondare garbia 2017ko ekitaldiaren bukaeran	0	205.571	205.571

7. 2017ko ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	2017	2016
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak	754.038	755.619
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	753.544	755.300
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	14	178
6. Beste kobrantza batzuk	480	142
B) Ordainketak:	735.289	782.036
7. Langile-gastuak	485.273	479.444
8. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	32.495	31.229
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	132.522	147.946
13. Beste ordainketa batzuk	84.999	123.418
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)	18.749	-26.417
II. INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	1.536	896
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	1.536	896
D) Ordainketak:	5.768	7.408
4. Inbertsio errealen erosketak	5.768	4.336
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	0	3.072
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)	-4.232	-6.512
VI. ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN HAN-DITZE/GUTXITZE GARBIA (I+II+III+IV+V)	14.517	-32.929
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	126.688	159.618
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	141.206	126.688

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena (2017), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena (2017) egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena (2017), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (13. or.).
 - II. Nafarroako Kontseiluaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko iritzia (14. or.).
 - II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (15. or.).
 - II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (15. or.).
- Eranskina. Nafarroako Kontseiluaren 2017ko kontuen laburpena (16. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorena da. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridiko guztia betetzen dela begiratu du. Kontseiluaren irizpenek ezin izanen dute egokitasun edo komenigarritasunari buruzko baloraziorik eduki.

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2018rako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Kontu horiek honako hauek osatuta daude, funtsean: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua, ondare garbiaren aldaketaren egoera-orria, eskudiruaren fluxuaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkia.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Kontseiluak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Kontseiluari 2017an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.
- Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legea.
- Otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretua, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamendua onesten duena. ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuaren eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen foru dekretu hori.
- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 24/2016 Foru Legea, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Kontseiluak autonomia organiko eta funtzionala du bere jardueretan aritzeko. Haren aurrekontua Nafarroako Aurrekontu Orokorretan jasotzen da aurrekontu-programa independente gisa, eta kudeaketa ekonomiko eta aurrekontukoa Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duten printzipio eta arauen arabera da.

Kontseilua bost kidek osatzen dute, izen aitortua eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-erperientzia izan eta nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak. Zortzi urteko eperako izendatzen dira eta ezin dira berriz hautatuak izan.

Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Kontseilukideek hautatzen dituzte lehendakaria eta idazkaria.

Honela laburbiltzen dugu Nafarroako Kontseiluaren 2017ko ekitaldiko aurrekontu-likidazioari buruzko informazio garrantzitsua:

- 295.906 euroko aurrekontu-gastua egin du eta 372.541 euroko diru-sarrerak izan ditu.
- Kontseiluak 2017an gastatutako 100 euro bakoitzetik honako helburu hauetarako erabili da euro bakoitza, eta honakoen bidez finantzatu da:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza-iturria	Zenbatekoa
Langileak	50	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	50		
	100		100

- Nafarroako Kontseiluaren 2017ko plantilla organikoa bi lanpostuk osatuta zegoen: legelari bat, funtzionarioa (lanpostua hutsik gabe) eta lehendakariaren idazkari bat, zeina izendapen askeko behin-behineko langilea baita. 2017ko abenduaren 31n, Kontseiluan bi langilek egiten dute lan: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan dagoen Nafarroako Gobernuako funtzionarioa, eta lehendakariaren idazkari bat.

- 2017an, Kontseiluak 53 irizpen egin ditu; 2016an, berriz, 56 izan ziren. Nafarroako Kontseiluaren ordainsari-ereduak ez du biltzen haren kideen profesionalizatzea. Kalte-ordain batzuk jasotzen dituzte txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik, eta dieta-sistema bat dute bileretarako bertaratzeak ordaintzeko. 2017an, irizpen horiek egiteak 104.652 euroko kalte-ordainak eragin ditu, eta bertaratzeengatik dietek, berriz, 22.790 euro egin dute.

- Kontseiluak, arau indardunari jarraituz, 76.635 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari.

Txostenak bi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenak gure iritzi finantzarioa eta legezkotasunaren betetzeari buruzkoa azaltzen du, Kontseiluaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuei dagokionez. Txostenari eranskin bat gehitu diogu, urteko kontuen laburpen batekin.

Azterketa lana 2018ko apirilean egin du lantalde batek, auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatuak. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzara ere izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Kontseiluko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2017ko EKITALDIKO URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Nafarroako Kontseiluaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen eranskinean.

NAFARROAKO KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA

Kontseiluburua da urteko kontuak egiteko ardura duena. Urteko kontu horiek, Kontseiluko Osoko Bilkurari aurkeztuko dizkio, onets ditzan, halako moduz non irudi zehatza azalduko baitute Kontseiluaren ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta aurrekontu-betetzeari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko eta barne kontroleko arau-esparruari jarraituz, horren bidez prestatu eta aurkeztu ahal izateko iruzur edo akatsen ondoriozko oker materialik ez duten urteko kontu batzuk.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta lanaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Azterketa honek

barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriari eta legezkotasuna betetzeari buruzko iritzia eusteko.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Gure iritziz, urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, Nafarroako Kontseiluaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2017ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Kontseiluaren 2017ko ekitaldiari buruzko urteko kontuetan jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga

ERANSKINA. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2017ko KONTUEN LABURPENA**1. 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****GASTUEN EGOERA-ORRIA**

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak
1. Langile-gastuak	197.954	197.654	147.513	147.513
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	220.370	220.370	147.595	147.595
6. Inbertsio errealak	28.000	28.000	798	798
Gastuak, guztira	446.324	446.324	295.906	295.906

(Eurotan)

DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak
4. Transferentzia arruntak	418.280	418.280	371.743	371.743
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	44	-	-	-
7. Kapital-transferentziak	28.000	28.000	798	798
Diru-sarrerak, guztira	446.324	446.280	372.541	372.541

(Eurotan)

2. 2017ko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Zenbatekoaren aldea
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kap.)	372.541	295.906	76.635
2. Finantza-aktiboen eragiketak (8. kap.)	-	-	-
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (1+2)	372.541	295.906	76.635
II. Finantza-pasiboen alde garbia	-	-	-
III Ekitaldiko aurrekontu-saldoa (I+II)	372.541	295.906	76.635
IV. Ekitaldiko finantzaketaren superabita			76.635

(Eurotan)

3. DIRUZAINZAKO GERAKINA 2017ko ABENDUAREN 31n

	2016	2017
+ I. Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak Ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontukoak Itxitako diru-sarreraren aurrekontukoak	0	0
- II. Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak Ekitaldiko aurrekontuko diru-sarreraren aurrekontukoak Itxitako aurrekontuko diru-sarreraren aurrekontukoak Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	5.208	10.474
III Ekitaldi amaierako funts likidoak	80.421	87.109
IV. Atxikitako diruzaintzako gerakina	0	0
V. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina (I-II+III-IV)	75.214	76.635
Diruzaintzako gerakina, guztira (IV+V)	75.214	76.635
Foru Ogasunari itzuli beharreko funtsak	75.214	76.635

(Eurotan)

4. EGOERA-BALANTZEA 2017ko ABENDUAREN 31n

	(Eurotan)	
Aktiboa	2016	2017
<i>Ibilgetu garbia</i>	4.029	3.224
Altzariak eta tresneria	2.283	1.712
Informazioa prozesatzeko tresneria	1.746	1.511
Bestelako ibilgetu materiala	-	-
<i>Aktibo zirkulatuak</i>	80.421	87.109
Diruzaintza	80.421	87.109
Epe laburreko zordunak	-	-
Aktiboa, guztira	84.450	90.333

	2016	2017
<i>Garbia eta pasiboa</i>	79.243	79.859
<i>Ondare garbia</i>	75.214	76.635
Ekitaldiko emaitza	4.029	3.224
Beste ondare-gehikuntza batzuk Emaitzei egozteko	5.208	10.474
<i>Epe laburreko hartzekodunak</i>	5.208	10.474
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak		
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	5.208	10.474
Garbia eta pasiboa, guztira	84.450	90.333

5. 2017ko EMAITZEN KONTUA

			(Eurotan)	
	2016	2017	2016	2017
Langile-gastuak	121.932	147.513	Diru-sarrera finantzarioak	20
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	172.827	147.595	Transferentzia arruntak	369.952
Amortizazioa	2.346	1.603	Diru-laguntzen emaitzen egozpena. Ibilgetua	2.346
<i>Aurrezkoa (emaitza positiboa)</i>	75.214	76.635		1.603
Guztira	372.318	373.346	Guztira	372.318

6. 2017ko ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	(Eurotan)		
	Sortutako ondarea	Bestelako ondare-gehikuntzak	Guztira
Amaierako ondare garbia, 2016	75.214	4.029	79.243
<i>Ekitaldiko aldeak</i>	1.422	-805	616
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak	76.635	-1.603	
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	-75.214		
Ondare garbian izandako beste alde batzuk		798	
Amaierako ondare garbia, 2017	76.635	3.224	79.859

7. 2017ko ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	(Eurotan)	
	2016	2017
I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak		
A) Kobrantzak	248.040	247.818
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	248.020	247.818
Kobratutako interesak eta dibidenduak	20	0
Beste kobrantza batzuk	-	-
B) Ordainketak:	-170.849	-165.118
Hornidurak	41.818	42.943
Bertaratze-dietak eta kontseilarien irizpenengatiko ordainak	107.188	98.109
Beste ente publiko batzuen kontura bildutako baliabideen kudeaketa	21.843	24.067
Ordaindutako interesak	-	-
<i>Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (A+B)</i>	<i>77.191</i>	<i>82.700</i>
II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak		
C) Kobrantzak:	-	-
Inbertsio errealeen salmenta	-	-
Finantza-aktiboen salmenta	-	-
D) Ordainketak:	-	-798
Inbertsio errealeen erosketa	-	798
Finantza-aktiboen erosketa	-	-
<i>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (C+D)</i>	<i>0</i>	<i>-798</i>
III Finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak		
E) Ondarean izandako gehikuntzak	-	-
Ondareari egindako ekarpenak	-	-
F) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egindako ordainketak	-122.181	-75.214
Ekarpenen itzulketak eta emaitzen banaketa	-122.181	75.214
<i>Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (E+F)</i>	<i>-122.181</i>	<i>-75.214</i>
VII. Eskudiruaren handitze/gutxitze garbia	-44.990	6.688
Eskudirua ekitaldiaren hasieran	125.411	80.421
Eskudirua ekitaldiaren amaieran	80.421	87.109

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzekoa.

Bete gabe gelditu da

Lehendakari honek 2017ko irailaren 22an emandako ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketaren bidez eta txanda irekian betetzeko deialdia onetsi zen. Deialdiaren testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean urte horretako urriaren 2an argitaratu zen.

Kalifikazio epaimahaia eratu ondoren eta lehiaketaldia baloratu ondoren, 2018ko ekainaren 4an oposizioaldiko lehenengo ariketa egin zen, non kontabilitate publiko eta pribatuko zenbait kasu ebatzi behar baitziren. Ekainaren 6an, kalifikazio epaimahaiak probaren emaitzak argitaratu zituen: izangai bakar batek ere ez zuen lortu ariketa gainditzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa.

Horrenbestez, deialdiaren oinarriekin bat, epaimahaiak, 2018ko ekainaren 18an, proposatu du bete gabe uztea deitutako lanpostua, izangai bakar batek ere ez baitu gainditu prozesua. Hortaz, lehendakaritza honek, dagozkion ahalmenak eta eskumenak erabiliz,

EBATZI DU:

Lehena. Bete gabe uztea Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko deialdia, lehendakari honen 2017ko irailaren 22ko ebazpenaren bidez onetsi zena, izangai bakar batek ere ez baitu gainditu oposizioaldiko lehenengo ariketa.

Bigarrena. Bete gabe gelditu den auditore lanpostu hori deialdi berri batean eskain dadila xedatzea, indarreko araudian ezarritakoarekin bat.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen webgunean argitara dadila agintzea, eta, orobat, Kontuen Ganberako idazkari nagusiari jakinaztea, haren berri izan dezan.

Iruñean, 2018ko ekainaren 20an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2018ko ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko uztailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2018ko ekainaren 28an proposatu du, Mahaiaren 2018ko urtarrilaren 15eko erabakia betez, lehendakariaren 2018ko ordainsariak eguneratzea.

Aipatu ordainsariak ikusirik, Lehendakariak proposatzen du bere urteko ordainsari gordina ez igotzea.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko

Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsariak ez duela inolako igoerarik izanen aurreko ekitaldikoarekin alderatuta.

2. Lehendakariaren 2018. urteko ordainsari gordina 57.253,14 eurokoa izatea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentarien 2018ko ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko uztailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2018ko ekainaren 28an proposatu du, Mahaiaren 2018ko urtarrilaren 15eko erabakia betez, foru parlamentarien 2018ko ordainsariak eguneratzea.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Onestea 57.569,40 eurokoa izanen dela lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien 2018. urterako ordainsari gordina.

2. Onestea 51.171,68 eurokoa izanen dela lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien 2018. urterako ordainsari gordina.

3. Onestea 43.176,98 eurokoa izanen dela lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien 2018. urterako ordainsari gordina.

4. Onestea 38.378,62 eurokoa izanen dela lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien 2018. urterako ordainsari gordina.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2018an jasoko dituzten ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko uztailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2018ko ekainaren 28an proposatu du, Mahaiaren 2018ko urtarrilaren 15eko erabakia betez, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke jasoko dituzten 2018ko ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzearen truke 2018an jasoko dituzten

ordainsariak. Haien modalitateak eta zenbatekoak hauek dira:

– 139,58 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

– 165,05 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, helbidea Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarietzat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2018ko ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko uztailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2018ko ekainaren 28an proposatu du, Mahaiaren 2018ko urtarrilaren 15eko erabakia betez, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2018ko ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKIA:

1. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak onestea, 2018. urterako:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 52.425,80 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 38.431,40 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 30.904,16 euro.

– Talde parlamentarioen laguntzaileak: 30.904,16 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen sailkapen-mailei dagozkien 2018ko ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko uztailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2018ko ekainaren 28an proposatu du, Mahaiaren 2018ko urtarrilaren 22ko erabakia betez, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langile funtzionarioen eta kontratadunen sailkapen-mailei dagozkien 2018ko ordainsariak eguneratzea.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Legebiltzarreko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Onestea sailkapen-maila bakoitzaren hasierako soldatak 2018. urterako. Hauek dira haien urteko zenbatekoak:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	26.176,78 euro
B	22.021,72 euro
C	18.267,76 euro
D	15.909,88 euro
E	13.994,54 euro.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko uztailaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

